

Sagardotegiak

JOXE AIERBE

San Sebastianak inguruan asita Aste Santua pasa bitartean, gutxi gora-beera, ez da giro izaten sagardotegietan. Denbora-aldi ori bait da ain zuzen sagardo proaketako garaia. Oitura ori, oker ez ba'gaude, gero sagardoa erosi bear zuten elkarte, jatetxe, taberna eta antzeko tokietako jendea-rengandik dator batipat.

Erosi aurretik aukeratu egiten zuten beren gustokoa. Eta ortarako pratu egin bear lendabizi, eta zenbat eta geiago obe.Gero, lengoak esan zuana: «atzo sagardoa proatzera joan, eta edan egin genikan». Ortarako gañera, elkartee-tan beintzat, entendituenak auke-ratzen zituzten eta argi ibili bearra zeukaten, bestela...

Gaur ere berdin jarraituko dute, noski, baiña oitura izugarri zabaldu da. Orain mundu guztientzat ateak zabalik daude, eta urtean zear sagardoa badanik ere ia gogoratzen etzaienak, amorratzen joaten dira batera eta bestera. Zalantzarik gabe bere sasoiari botillan sartutako sagardoak, bere onera etortzen danean, beste grazi bat izango du.

Gaurregun, ordea, upeletik edateko oitura edo moda indarrean dago eta jendeari atsegin zaiola ezin ukatu.

Ori dala-ta, orain ogei edo ogeitamar urtetik onera badago alde ederra sagardotegietan. Besteak-beste, emakumeak joaten asi zira-netik datorren aldakuntza nabar-mena da. Leen etzan izaten exer-lekurik sagardotegian.

Zuanak zuana maiaren jiran jarrita zutik jaten zuan, baiña, ori bai, maitik upelerañoko ibillaldia maiz xamar egiñez.Luzaroan zutik egon ezkeru andak ere oztu egiten bait dira.

Esan bezela, gauzak asko aldatu dira, eta oraindik gizonezko geiago ikusten dan arren, emakumea asko ugaritu da sagardotegietan. Orrek beartuko zituan neurri aundi batean aulkiak eta gañontzeko erosotasunak jartzera. Geienak era ortan prestatuta daude beintzat. Emakumeen ait-zakian, gutako askok ere ez dio musin egiten aulkiari, sagardo-zale jatorrak zutik egon beardula jakinagatik.

Emakumeen aurka ez daukagu ezer esateko, bakarrik bezin gustora josten gera beraiekin, baiña badira oraindik emakumeek upeletik sagardoa artzen ez dakitela eta edan baiño alparrik galdu geiago egiten dutela diotenak. Egia esan bear ba'da, danetik ikusten da: ezjakin eta arreta gabeko gizonezko asko, eta iñoren inbiririk ez dutela, tantorik lurrera izuri gabe, ederki asko ikasitako emakumeak ere bai. Eta ori sagardo egilleek oso begi onez ikusten dute. Batez beste jota, gaurko antolaketa eta lana egiteko erari begiratuta, zergatik ez dago esan bearrik, emakumea berezo edo kliente ona dala uste dugu.

Gazte jendea, kintape inguru-koa alegia, gutxi joaten da sagardotegira, eta arrazoietakoa bat dirua izan liteke dudarik gabe. Bestea, ain sagardo-zaleak ez eta joerarik ez izatea. Eta ez genieke iñola biderik erakutsiko okerrago-ko leketan ibiltzen dirala ez ba'geneki. Eta aietan edan deza-keten edari eta gañontzekoak, sagardoak baiño kalte geiago egin dezaiekele jakingo ez ba'genu ere ez.

Neurriz kanpo dena da txarra, baiña -propaganda egin asmorik gabe- sagardo pixka batek ez dizu kalterik egingo.